

TXIMINIAKO USO ZURIA

Libe Galdos Urbizu, 13 urte

Zegama

Nerea hamahiru urteko neska alai eta jator bat zen. Zegaman bizi zen herritik aparte zegoen etxe eder batean. Polizia ipuinak irakurtzen zituen bere denbora librean. Txikitatik zeukan ametsa polizia izatea zen, eta misterioak argitu eta gaizkileak kartzelaratzeari. Nereak ahizpa bat zeukan, Irena izenekoa, eta bera baino hiru urte gazteagoa zen. Irene oso neska atsegina zen eta asko balio zuena. Txikitxikitatik marrazki bikainak egiten zituen eta oso ondo, gainera. Eskolan oso ezaguna zen irakasle eta ikasle guztien artean bere artelanengatik. Zoritxarrez, bost urte zituela, Irene auto batek harrapatuta hil zen. Familia osoarentzat oso gogorra izan zen.

Udazkeneko egun hotz batean, Nerea bere gus-tuko liburu bat irakurtzen ari zela su ondoan, hots batzuk entzun zituen teilatu aldean. Goiko pisura igo zen eta teilatuko leihotik burua atera zuen. Tximinia ondoko txokoa, uso-habia bat ikusi zuen, uso zuri eta txikiak zeuden eta beraien ama tximinia ganean zegoen. Ama, kumeei janaria

ematen ari zen; haiek oso gosetuta zeudela antzematen zen. Nerea irudi polit horri begira zegoela, konturatu zen uso amak papertxo bat zeukala hankan lotuta. Nereak kontuz-kontuz papertxoa hartu zuen usoaren hankatxotik eta behera jeitsi zen irakurtzera. Honela zihoen: “Preso naukate etxetxo batean, mezu hau norbaitek irakurtzen badu, lagundu mesedez!” Nereak ez zekien zer egin. Iruditzen zitzaion uso zuriek pelikuletan bakarrik ekartzen zituztela horrelako mezu interesgarriak. Hasieran, poliziarengana jotzea pentsatu zuen, baina azkenean berak egin zezakeela eta, mezua erantzutea erabaki zuen. Nereak hainbeste libururen artean bazuen bat mezu sekretuei buruzkoa. Ipuineko poliziak bidaltzen zuen lehenengo mezuak izen-abizenak eta kokalekua aipatzen zituen. Beraz, hau idatzi zuen: “Zein dira zure izen-abizenak eta non zaude?” Nereak sokatxo batekin uso zuri handienari lotu zion hankan mezua eta usoa joan egin zen.

Hurrengo arratsaldean, Nerea teilatuko leihora joan eta usoa itzuli zen begiratu zuen. Han zegoen papertxo bat hankan lotuta zuela. Poliki-poliki, hurbildu eta pepertxoa hartu zuen. Behera jaitzi zen irakurtzera. Berak bidalitakoaren erantzuna zen: “Irene dut izena eta ez dakit nire abizena, bost urte nituela bahitu ninduten. Ez dakit zehazki non nagoen baina etxetxoaren ondoan ardi itxurako harri handi bat dago.” Nereari bere ustez txorakeria bat zen ideia bat pasa zitzaion burutik, eta... Bere ahizpa bazen bahituta zegoen neska? Baina

idea hura burutik kendu nahi zuen, bere ahizpa hilda baitzegoen. Hala ere, idazkerari erreparatuta, pentsatu zuen izan zitekeela bere ahizparena. Duda hoiek baztertzeko, erantzun egin zuen: “Zuk bost urte zenituela bahitu zintuzten, baina noiz zehazki?” Usoaren hankan lotu zuen eta hurrengo egunerako usoak beste mezu bat ekarri zuen. Nereak inoiz baino larriago, hartu eta irakurri egin zuen: “Nik nuen adinarekin ez nekien hilabeterik, baina badakit gabonak ondoren zela, nire ahizpa zaharrenaren urtebetetzeko festan.” Nereak hori irakurtzean, bere zalantzak argitu zituen. Bere ahizpa Irene bost urte zituela hil zen bere urtebetetze festa egunean auto batek harrapatuta parkera zihola. Nerea korrika aitarengana joan eta galde-tu zion:

–Aita, ba al dakizu non dagoen ardi itxurako hari handi bat?

–Ba Zegaman badago, seguru dakidala baina oraintxe bertan ez naiz gogoratzen. Zertarako jakin nahi duzu?

–Ezertarako ez, eskolan galdetu digute, jakiteagatik– erantzun zuen Nereak larri.

–Ni ez naiz gogoratzen, baina galdetu amari nahi baduzu.

Nerea amarengana joan zen korrika bizian. Disimulatu egin nahi zuen bere larritasuna baina, ezin zuen.

–Ama, mesedez galdera bati erantzun behar diozu...

–Bota lasai neska.

–Ba al dakizu non dagoen Zegaman, ardi itxurako harri bat?

–Ardi itxurakoa? Ez dut sekula horrelakorik eza-gutu, sentitzen dut, Nerea. Liburutegiko libururen batean seguru agertzen dela.

–Ongi da, haruntz noa ama, agur!

Zegamako liburutegira joan zen, Irene aurkitu nahi zuen bere ahizpa zela esan baino lehen. “Zegamako inguruak” liburuan begiratu zuen eta aurkitu zuen. “Zegaman ez da oso famatua aspaldiko eskultore batek egindako ardi itxurako harri handi bat. Otzaurtera bidean dagoen Oianguren baserriaren parean dago “Nerearen etxetik kilometro pare batzuetara zegoen Oianguren. Ahal zen bezain bizkorren Oianguren aldera abiatu zen. Oraindik sine-tsi ezinik zegoen historia hura dena. Bere ipuinetako bat iruditzen zitzaion eta bera zela polizia. Iritsi zen eta bertan zegoen baserritar bati ardi itxurako harriarengatik galdetu zion. Baserritarrak nondik joan behar zuen esan zion eta Nereak kasu egin eta bertan agertu zen. Etxolatxo hor zegoen eta leihotik begiratu zuen bahitzailea han zegoen jakiteko. Ez zegoenez, sartu egin zen Irene askatzera.

–Irene! Ni naiz, Nerea zure ahizpa zaharrena. Gogoratzen al zara nitaz?

–Nerea! Bai, gogoratuko ez naiz bada? Eskerrak etorri zaren!– bi neskak besarkatuta zeudela, bahitzailea sartu, eta Nerea eta Irene bi aulkitan lotuta jarri zituen eta esan zion Ireneri:

–Esan nizun norbaiti esaten bazenion gaizki bukatuko zenuela. Orain zortziak dira, bihar goi-

zeco seietan Parisera abiatuko gara zure koadroekin. Erakusketa bat daukat eta han geratuko gara. Ez duzue zuen familia sekula gehiago ikusiko eta ni aberatsa egingo naiz zuen kontura! Ja, ja, ja...!– Bahitzailea, hurrengo goizerako gauzak prestatzera joan zen. Bitartean bi ahizpek berriketan jarraitu zuten.

–Aizu Irene, zer da zure koadroen istorio hori?

–Gizon honek, nola marrazten nuen jakin zuen, nire plastikako maisuaren lagun mina zen. Ni bahituz gero, berak dirua irabaz zezakeela pentsatu zuen eta halaxe egin zuen. Etxolatxo honetara ekarri ninduen eta jatekoa eta arropak ekartzen zizkidan. Mundu guztiari sinistarazi zion hil nintzela istripu faltsu bat antolatuta. Pintura klaseak emateko oso pintore ona ekartzen zuen etxolara eta koadro oso onak egiten erakutsi zidan. Bahitzaileak saldu eta diru asko lortzen du. –erantzun zuen Irenek oso triste.

–Ez dakit nola, baina hemendik alde egin behar dugu lehenbailehen. –Esan zuen Nereak pentsakor. Bat-batean, hots bat entzun zen leihoan. Tximiniako uso zuria zen! Segituan, papertxo batean mezu bat idatzi zuten: “Lagundu mesedez, Nerea eta Irene gara eta Oiangueren baserri ondo-ko ardi itxurako harri baten ondoan dagoen etxolan gaude harrapatuta.” Uso zuriari hankan poliki-poliki lotu eta bidali egin zuten.

Bitartean, etxean, Irene eta Nerearen gurasoak kezkatuta zeuden Nerearengatik. Bat-batean sukaldeko leihotik uso zuri bat sartu zen. Ama garrasi

batean, usoa uxatzen saiatu zen, baina bi nesken aitak hankako papertxoak ikusi zion eta gelditzeko agindu zion amari. Irakurri bezain laster, polizia deitu eta bi ahizpak zeuden etxolatorira joan ziren.

Bai aita eta bai ama harriduta eta sinistu ezinda zeuden beraien alaba bizirik zegoelako. Bahitzaileak hil egin zela sinistarazi zien denei istripu bat antolatuta. Ez zekiten poztu Irenerengatik edo tristetu biak zeuden egoeran egoteagatik.

Poliziek bi neskak askatu zituzten eta bahitzailea atxilotu zuten. Poliziek eskerrak eman zizkion Nereari kasua argitzeagatik. Polizien nagusiak polizia plaka bat oparitu zion, baina ez bere izenarekin oraindik. Horretarako gehiago ikastea falta zitzaio- la esan zion. Irenek, berriz, bere familiarekin gal- dutako denbora berreskuratu zuen eta ospetsu egin zen bere artelanekin. Eta ez pentsa usoa ezer gabe geratu zirenik! Etxetxo polit bat eraiki zieten eta beraien jardinean jarri. Egunero janaria eramaten zieten, oso ondo zaintzen zituzten usotxo guztiak.